

MAIATZAREN LEHENA

NUESTRO TRABAJO TRANSFORMA EL MUNDO

BIZITZA erdigunera



Garai zailak dira langile askorentzat. Batzuk kaleratuak izan dira, beste batzuk eskubide murrizketak pairatu ditugu, askok ziurgabetasunez begiratzen diote etorkizunari.

Salbuespen egoera honetan hamaika egoera latz bistaratu zaizkigu: Paris eta Madriletik ezarritako dekretuen bidez lau paretan artean zorrozki konfinatu gaituzten bitartean, prebentzio neurririk gabe lan egitera behartu gaituzte. Ikusi dugu gure osasun sistema publikoa zenbateraino ahulduta dagoen, azken hamarkadetan alderdi sistemikoen (PP, PSOE, EAJ, UPN, En Marche) ezarritako murrizketen eraginez; ikusi ditugu urteetan zaintza lanak pribatizatu eta azpigaratu izanaren ondorioak; pribatizazioaren ondorio larriak ikusi ditugu ere hondakinen kudeaketan: bi hilabete eta erdi baino gehiago dira Alberto eta Joaquín Zaldibarren desagertu zirela.

Eta ikusitakoak, aldi berean, erakutsi digu, publikotasunaren garrantzia zenbaterainokoa den. Zer beharrezkoa den osasun eta zaintza sistema publiko sendo bat izatea. Ikusi ditugu milaka lagun herri eta auzoetako elkartasun sareetan antolatzen. Ikusi dugu zeintzuk diren, benetan, bizitza sostengatzeko ezinbesteko lanak, eta ikusi ditugu, gehienetan, emakumeak lan horiek egiten. Ikusi eta ikasi dugu, gogoratu, gure lanak mugitzen duela mundua eta, era berean, gure lanak eraldatu dezakeela mundua.

Funtsean, Kapitalaren eta Bizitzaren arteko borroka da aste hauetan ikusi duguna: Patronalaren mesedetan egin-

dako kudeaketa zentralizatu eta autoritarioa batetik; herria, herritarrak, auzokideak, bizilagunak, ingurukoak zaindu nahi dituen komunitatea, bestetik.

Bistan denez, orain, inoiz baino gehiago, geure burua antolatu behar dugu borroka hori irabazteko, bizitza erdigunean jarriko duen eredu ekonomiko eta sozial berria sortzeko. Historiako une desberdinetan erakutsi bezala, langileok badugu mundua eraldatzeko indarra; arazo zehatzei erantzuna ematearekin batera, alternatiba orokorra eraikitzeko gaitasuna.

Proposatzen ditugun eraldaketarako ardatzak honako hauek dira:

- > Herritar orori lan, pentsio eta bizitza duina bermatzeko premiazko neurriak.
- > Osasun eta zaintza sistema publikoa sendotu eta osasun nahiz zaintza baliabide oro publikatu.
- > Aberastasuna birbanatu eta eskubideak bermatzeko baliabideak eskainiko dituen politika fiskala ezarri.
- > Ekoizpen eta kontsumo eredu birpentsatu eta demokratizatu, ekosozialismoaren eta feminismoaren oinarriak aintzat hartuz.
- > Herri burujabetza bermatuko duen Euskal Errepublika eratu.

Bizitza erdigunean jarriko duen eredu berriaren alde borrokatzea goaz; urtarilaren 30eko Greba Orokorren bidetik, eremu sindikalean nahiz sozialean eraldaketaren aldeko indarrak bilduz.

Gora Langile Borroka!
Gora Maiatzaren Lehena!

LAB